Osakidetza

# PRESBIDEKO BERRIKUNTZAK - 2021KO APIRILA

1. Glomerulu-iragazketa
2. Hornidurarik eza
3. Egokitzapena

## 1 – GLOMERU-IRAGAZKETA: azken analitikaren balioa bistaratzea

Glomerulu-iragazketaren (GI) azken analitikaren balioaren bistaratzea gehitu da Presbidetik. Hori da pazientearen segurtasuna hobetzea helburu duten hobekuntzen artean lehena, medikamentuak giltzurrun-funtzioaren arabera dosifikatzea errazten baitu.

Presbideren pazientearen datuen atalean (goian, eskuinean), Gestlaben erregistratutako glomerulu-iragazketaren azken analisiaren balioa agertzen da. Gorriz agertuko da zifra 30 mL/min/1.73 m2 baino txikiagoa bada.




Kurtsorea GI balioaren gainean jartzen denean, azken analitikaren analisi-data erakusten duen tooltip bat zabaltzen da, baita erabilitako kalkulu-formularen gainean ere.




Bigarren fase batean, mendikamentuaren fitxan kontsultatu ahal izango dira giltzurrun-funtzioaren araberako doikuntza-gomendioak. Hirugarren fasean, aurreikusita dago Presbidek GIren datuaren arabera preskribatutako dosia baliozkotzea eta segurtasun-alerta bat piztea aurrez zehaztutako kasuetan.

## 2-HORNIDURARIK EZA

"Hornidura ezak" botoia gehitu da. Botoi horren bidez, medikamentuen hornidura-gabezia nabarmenei buruzko zerrenda agertuko da. Osakidetzako lehen mailako arretako farmazialariek egin eta eguneratzen dute aldian-aldian zerrenda hori, Osakidetzako Farmazia Zerbitzu Korporatiboarekin eta Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzarekin koordinatuta.




Zerrendan, EAEko farmazia-banaketako biltegien egungo erabilgarritasunari buruzko informazioa ematen da, baita egon litezkeen alternatibei buruzkoa ere, atzerriko medikamentuengatik eskuragarri egotea barne. Presbiden lotutako abisuak dituzten medikamentuak (P) batekin bereizten dira.


Osakidetza

TABLA DE MEDICAMENTOS CON PROBLEMAS DE SUMINISTRO

Fecha de actualización: **16/04/2021**

Listado elaborado y actualizado periódicamente por los Farmacéuticos de Atención Primaria. **No se trata de un listado exhaustivo.**

| Nombre comercial | Principio/s activo/s | Fecha prevista de finalización del problema | Observaciones | Fecha de revisión del problema |
|---|---|---|---|---|
| **Adalat oros®** 30 y 60 mg 28 comprimidos lib retard | Nifedipino | Adalat oros®30 mg: Desconocida Adalat oros®60 mg: BAJA (06/08/2020) | Adalat oros® 30 mg: disponible en todos los almacenes. Si no disponible en farmacia, valorar la utilización de otros tratamientos. | 07/04/2021 |
| **Aldactacine 25mg/15mg,** 40 comp | Espironolactona/altizida | 01/03/2021 | Disponible en la mayoría de los almacenes. Valorar otras alternativas | 07/04/2021 |
| **Altellus®150 mcg** pluma precargada | Epinefrina | Envase 1 pluma: 29/01/2021 Envase 2 plumas: 28/02/2021 | SOLUCIONADO (17/03/2021). Disponible el de 1 pluma, y el de 2 plumas | 07/04/2021 |
| **Amchafibrin®** 500 mg solución inyectable, ampollas (P) y **Amchafibrin®** 500 mg comprimidos | Ácido tranexámico | Ampollas: 31/05/2021 | **Ampollas: se pueden solicitar vía** medicamentos extranjeros (En abril se recibirán nuevas unidades). Comprimidos disponible en los almacenes. | 07/04/2021 |
| **Anapen®** 0,50 mg/0,3 ml jeringa precargada | Adrenalina | 02/03/2020 | Disponibles en algunos almacenes. A partir 30Kg se pueden utilizar Jext 300 o Altellus 300 mcg. | 07/04/2021 |
| **Angeliq®** 1 mg/2 mg 1x28 comprimidos y 3x28 comprimidos (P) | Drospirenona/ Estradiol | 1 x 28 comp: 31/03/2022 3x28 comp: 14/04/2021 | Valorar la utilización de otros tratamientos. | 07/04/2021 |
| **Beneflur® 10 mg** comprimidos (P) | Fludarabina | Desconocida | Disponible en algún almacén **Se puede solicitar vía medicamentos extranjeros.** | 07/04/2021 |
| **Benferol choque ® 100.000 UI** cap | Colecalciferol | 05/04/2021 | Disponible en la mayoría de los almacenes. Alternativa 2 capsulas benferol 50.000 UI | 07/04/2021 |
| **Britapen® 500 mg 8 cap** | Ampicilina | Desconocida | Disponible la presentación de 16 cápsulas | 07/04/2021 |

*(P): Lleva aviso en Presbide a la hora de iniciar, consultar o modificar la prescripción.*

## 3- EGOKITASUNA

"Egokitasuna" funtziorako sarbide berri bat gaitzen da, osasun-profesionalak soilik erabiltzeko pdf formatuko txosten inprimagarri bat lortzeko aukerarekin. Eskuragarri dago Presbideren pantaila orokorrean, "Preskripzioa" goitibeherako menuan):




Funtzionalitate horrek, gaur egun, pazientearen tratamenduan dauden interakzioei, bikoiztasunei, eguneko gehieneko dosi gaindituari eta karga antikolinergiko handiari buruzko informazioa ematen du. Etorkizunean informazio hori zabaltzea aurreikusi da, Presbiden laguntza berriak sartu ahala (alergiak, doikuntzak giltzurrun-gutxiegitasunean ...).